



**Hitanoa indartzeko ikastaro
bat egingo da apirilean**

**Andrea Arruti: “Antzerkiak
askatasuna ematen dit”**

**Jon Gurrutxaga
eta Urbil Artola Sutegin
arituko dira ostiral honetan**



Auto-partekatua

Keinu txiki bat, asmo handi baten alde

ASTE SANTUA

egunean 5 ordu
5 egunez

**martxoak 29-apirilak 2
apirilak 5-9**

telf: 666607447

**zaldi heziketa
baserriko lanak
baratzagintza
jolasak
eta gehiago
euskaraz**



**goizez
09:00-14:00
arratsaldez
15:00-20:00**

ion markel
ARGAZKILARI

GOLDWELL
ELUMEN

*i
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i*



**Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrak**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

NOKA ikastaro praktikoa

Ordu eta erdiko 6 saio

Bi talde, aukeran:

Ostegunetan, 18:00etatik aurrera
Larunbatetan, 10:00etatik aurrera

16 urtetik gorako
herritarrentzat
Potxoenean
Apirilaren 15ean eta
17an hasita



Ta hi,
bahator?

Idatzi
ezan mezu bat
itzultzailea@usurbil.eus
helbidera

Joango
ez naun ba! Zer egin behar
dun izena emateko?

Hantxe
izango gaitun!



aek

Albisteak iruditan

Zaporeak: “Astean behin janari poltsa bana emango diegu Lesbos uharteko errefuxiatuei”

LH6ko ikasleak lanpetuta ibili ziren aurreko astean, esnea biltzen eta arropa saltzen. Jasotakoa Zaporeak elkartekoei eman diete, Lesbosko erre-fuxiatuei laguntzen jarrai dezaten.

Zaporeak elkarteak janaria kozina-tzen eta banatzen jarraitzen du Grezian. “Lesbos uharteko Kara Tepe errefuxia-tuen esparruko iheslarien artean jana-ri duina banatzen dugu”, Zaporeak-en web orrialdean irakurri dugunez. “Mo-riako sutearen ondoren, gure lan egiteko modua berrantolatu behar izan genuen”. 5 hilabete hauetan, egoerak okerrera egin du eta Covid-19a tarteko, “pertsona errefuxiatuen elikadura premiak area-gotu egin dira. Horiek horrela, kozina-tzeaz gain, janaria ere banatzea erabaki dugu”.



Martxoaren 10etik 12ra, LH6ko ikasleak Agerialden izan ziren esnea batzen eta arropa saltzen.

Astero esnea eta fruta helarazi nahi die- te kanpalekuko biztanleei. “Astean behin janari poltsa bana banatuko diegu”, Za-

poreak-eko ordezkariak azaldu dutenez. Beraz, Usurbilen batutako esne-ontziek poltsa horiek osatzeko balioko dute.

Laburrean

Bi Covid-19 kasu atzeman zituzten asteburuan

Egun askotako tendentzia apurtu zen as-teburuan. Intzidentzia-tasa igotzen ari da gutxinaka. Usurbilen 31,71koa zen aste-lehenean (181,97koa Gipuzkoan). Euskal Autonomia Erkidegoan, Covid-19ak ku-tsututako 97 pertsona zeuden ZIU.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea es-katzen du Udalak (900 776 776), hon-dakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

Peña Pagola elkarteak, lokal baten bila

Peña Pagola elkarteak Kalezarren dago. Al-dameneko lokal bat erabiltzen zuten biltegi moduan. Lokal hori utzi beharrean daude orain, eta biltegi berri baten premian dira. Kalezarren lokal hutsen bat duenak deitu dezala hona: 610 478 138.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Xipri Arbelbide apaizak 'Oilarra kukuruka' liburua argitaratu du Erein argitaletxean. Bi hitzetan esateko, elizaren krisiaz edo gainbeheraz mintzo da liburuan eta ebanjelioan sinestera bultzatu nahi du jendea. Izenburua ebanjeliotik hartzen du. Pasarte oso ezaguna da: San Pedrok Jesus ukatu zuen bezain pronto, oilarrak kukurruku egin zuen eta orduan jabetu zen Pedro zein makurra izan zen bere maisuarekin eta negarrari eman zion saminez. Arbelbidek nahi du jendeak gogoeta egin deza la ea zertan den ohartzeko.

Aspaldidanik ezagutzen dut Xipri. Hamabi urte pasa nituen Ipar Euskal Herrian eta Biarnon eta orduan izan nuen bere berri. Heletan (Baxenabarra) jaio zen 1934an eta gazte zelarik soldadu Aljeriara joan zen, 14 hilabetez. Teologia ikasketak amaitu ondoren, Boli Kostara joan zen misiolari gisa 12 urtez. Liburu anitz idatzizak ditu. "Oilarra kukuruka liburuarekin" Miguel de Unamuno saria irabazi du.

Liburu hori idazteko abiapuntua bitxia izan zuen. Hain zuzen, duela bost urte, Pirinio Atlantikoetako 60 apaiz eta laiko talde bat Baionako Aillet apezpikuaren kontra agertu ziren idazki gogor baten bidez. Bertan Ailleten jarrera ultraeskuindarra salatzen zuten.

'Oilarra kukuruka'



"Xipri Arbelbide elizaren krisiaz edo gainbeheraz mintzo da bere liburuan eta ebanjelioan sinestera bultzatu nahi du jendea".

LUIS ARANALDE

"Kulparik ez du aurkitzen Elizaren baitan, kanpoan baizik. Elizgizon bezala autokritika txikienik ez du egiten"

Apaiz horiei esaten die: "etxe-ko etxeko egin behar ziren xuriketak, plaza gainean hedatu baino gehiago".

Elizaren beherakada horren une garrantzitsuenak izan dira bere ustez: Frantzian Eliza eta Estatua bereizi ziren garaia (1905), iraultzak, gerlak, marxismoa, 1968ko maiatz eta Enbataren sorrera Iparraldean.

Munduarekiko ikuspegi oso ezkorra dauka. "Eliza gaizki doa, gure gizartea gaizki baitoa, heriotzara baitoa. Gure lurra leher egiten ari da. Kontsumismoan sartuak gaude lepo zintzur-raino, gure sinestea kontsumismoan daukagu. Utzi dugu fedea eta marxismoan sinetsi. Hondamendirat daramagu Eliza eta

mundua elkarrekin". Hiltzorian dago, beraz, Eliza. Hizkuntza apokaliptiko hau nahiko maiz erabiltzen du. Munduaren irudi ilun honekin akabatzeke: "tripako minez" idatzi omen du bere liburu.

Hondamen honen aurrean, normala den bezala, errudun bila hasten da. Baina kulparik ez du aurkitzen Elizaren baitan, kanpoan baizik. Elizgizon bezala autokritika txikienik ez du egiten. Nik esango nioke: aizak, hi, Xipri, jendeak alde egin badu gure elizetatik, guk apai-zok eta orohar elizako ardura-dunek zerikusia izango diagu, ezta? Emango dizkiat adibide batzuk adierazteko eliza ez dela leku askotan batere eguneratu eta gutxienez ehun urteko atzerapenarekin bizi dela. Hor dituk etsenplu batzuk: elizaren matxismoa ez dik inork konpre-nitzen gaurko egunean, gure klerikalismoak ez dik zentzu-rik, gure elizetan erabiltzen du-gun hizkuntza biziki ulergaitza

duk, dena itzuli beharra zego-k, gure errito gehienak fosil-izatuak zeudek, zaharkituak. Pederastia kontu horiek ere asko zikindu ditek elizaren irudia.

Hik eta nik zerbitzatzen du-gun elizak guztiz antzaldatu beharra zeukak eta horretan saiatzea duk gure premiazko lana. Eta beste gauza bat: gaurko mundua askoz ego-kiagoa duk hik eta nik duela 70 urte ezagutu genuena bai-no. Nire ikuspegia hirea baino optimistagoa duk. Benetako sinestena ez duk neurtzen burutzen ditugun erritoetan, maitasunezko eta enpatiazko ekintzetan baizik. Egiazko si-nestena katean, familian eta lantokian frogatzen duk. Ho-rretan, garai bateko elizarrak ez zituan oraingoak baino ho-beak. Hala ere bere obsesioa da: elizak beteta eta apaizak ugaltzen ikustea.

Apai-zen eskasia aipatzen duk; baina guk jakin baze-kiagu gure eginkizuna ez dela agintzea elkarrekin, zerbitzatzea baizik. Jesus nazaretarrak ez zian kleriko-rik nahi, zerbitzariak baizik. Hire aberkide Bernard Besret honela zio (buruz ari nauk): "kleriko guztiak desager daitezen irrikatzen nago, horrela Jainkoak gizaki oro-ren bihotzean idatzitakoa inork ez baitu manipula-tuko". Izan bihotz, Xipri eta eutsi goiari.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapiain

Luis Aranalde

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ARRANDEGIA PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERA KHASTAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Hitanoa indartzeko ikastaroak antolatu dituzte Udalak eta euskaltegiak

Nokaren ezagutza eta erabilera bultzatzeko ikastaroak antolatu dituzte, elkarlanean, Udalak eta euskaltegiak. Apirilean hasiko dira eta Rosa Zubeldia Etumeta AEK euskaltegiako irakasleak gidatuko ditu.

“Ikastaroan nokari, emakumeei zuzendutako trataera alokutiboari emango zaio lehen-tasuna”, Udalak prentsa-ohar bidez jakinari duenez. “Baina hitanoaren oinarriak lantzea eta erabilera bultzatzea ere izango dute helburu”.

Oxkar Santamaria Euskaraz zinegotziak egitasmoaren aurkezpenean azaldu zuenez, “azken aldi luzean antzeko ikastaroa antolatzeko eskaera asko jaso ditugu Udalean”.

Transmisio falta

2016an Usurbilen egin zen kale neurketak agerian utzi zuen nokaren erabilera urria. Elkarrizketan aditutako herritarren artean 10etik 3k egin zuen hika, baina horien artean soilik %11,1 ari zen noka. Datuok mahai gainean, nokaren transmisioan etena gertatu dela ondorioztatzen du Udalak. “Gure guraso eta aiton-amonek egiten zuten hori gure belaunaldiak eta ondorengoek ez dute neurri berean jaso”, diote udal iturriek.

Hitanoa, herri ondare

Herri ondareztat du Udalak hitanoa, bere aldaera guztietan, eta horregatik abiatu du



Apirilaren 15ean eta 17an hasiko dira ikastaroak, Potxoenean. Izena emateko: apirilaren 8a baino lehen idatzi itzultzailea@usurbil.eus helbidera.

NOKA IKASTAROA

Ordu eta erdiko sei saio praktiko izango dira guztira. Bi talde osatuko dituzte, gehienez, hamabost lagunekoa

nokaren ezagutza eta erabilera bultzatzeko ikastaroa.

Erabilera sustatzeko ikastaroa

“Usurbilen euskaraz bizi gara. Ez alferrik, UEMAko kide ere bagara, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide. Harro eta pozik egoteko motiboak dira horiek denak, eta, noski, Udalak ere bere egiten du horrela segi dezaten baliabideak emateko konpromisoa”. Erabilerari dagokionez urrats bat gehiago ematekotan dira oraingoan. “Hitanoa indartzeko ikastaroa antolatu dugu AEK-rekin batera; hitanoa oro har, baina bereziki noka, hau

da, emakumeekin egiten den hizkuntza alokutiboa piztu nahi dugu”.

Ikastaroak harrera ona badu, irailean segida emango zaio. “Eta, akaso, hikaldi moduko egun bat jar dezakegu, herri mailako dinamika bihur dadin”.

Noka ikastaroa

- Doako ikastaroa da.
- 16 urtetik gorako herritarrak.
- Ordu eta erdiko sei saio praktiko izango dira.
- Bi talde osatzeko aukera: ostegun arratsaldeetan (18:00etatik aurrera) eta larunbat goizean (10:00etatik aurrera).
- Apirilaren 15ean eta 17an hasiko dira ikastaroak Potxoenean.
- Gidaria: Rosa Zubeldia euskaltegiako irakaslea.
- Izena emateko: mezua bidali behar da apirilaren 8a baino lehen itzultzailea@usurbil.eus helbidera.

Ziortza Gazte Elkartek zehaztu ditu aurtengo kanpaldirako datak

2020ko kanpaldia bertan behera geratu bazen ere, aurtengoan egiteko asmotan dira Ziortza Gazte Elkarteko kideak. Datak ostiralean jakinarazi zituzten: uztailaren 6tik 19ra DBH3 eta DBH4ko ikasleentzat, eta uztailaren 19tik 30era DBH1 eta DBH2ko ikasleentzat. Momentuz ez dute informazio gehiago helarazi, baina aurrerago zehaztuko dituzte aurre izen-ematerako data eta gainerako xehetasunak.

Joan zen urtean, kanpaldia bertan behera uztea erabaki zuten pandemia egoera ikusita. Errioxako herri txiki batean egin ohi dute kanpaldia, eta adineko jendeaz osatuta dago Peñaloscintos. Beldur nagusi horri, gazteen arteko kutsatzearen beldurra gehitu zitzaion, eta horiek izan ziren kanpaldia bertan behera uzteko arrazoi nagusiak. Horixe kontatu zioten Ziortza Gazte Elkarteko kideek NOAUari duela zenbait hilabete. Aurtengoan, egoerak hoberako joera duela ikusita, kanpaldiarekin printzipioz aurrera jarraitzea erabaki dute.



Uztailaren 6tik 19ra DBH3 eta DBH4ko ikasleen txanda izango da; uztailaren 19tik 30era DBH1 eta DBH2ko ikasleena.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patriketa
latetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

“Auto-partekatuarekin mugikortasun eredu berri baten aldeko apustua egin nahi dugu”

Usurbilgo Udalak eta Hyundai Oarso Car-ek proiektu pilotu bat jarri dute martxan: auto-partekatua. %100ean elektrikoa den autoa ipini dute usurbildarren zerbitzura. Vive aplikazioaren bitartez, gida-baimena duen edonork alokatu dezake.

Smartphone-etarako Vive aplikazioaren bidez, auto elektrikoa orduka alokatu daiteke, eta erreserbatutako orduen eta egindako kilometroen arabera ordainduko luke erabiltzaileak (1,5 euro/orduko eta 0,20 euro kilometroko). Erabili ahal izateko nahikoa da gidabaimena eta 18 urtetik gora izatea.

Aplikazioa instalatuta, erabiltzaile moduan alta eman behar da (argazkia, gidabaimena, NAN zenbakia eta kontu korrontea sartu behar dira), eta onartua izan behar da. Erabiltzaile moduan onartuta izan ondoren, autoa alokatzeko moduan izango da.

Gida praktikoa

Galdera ohikoen dokumentu bat egin du Udalak, erabiltzaileek eskura izan dezaten, euskaraz zein gaztelaniaz. Aldameneko orrialdean dituzue hainbat argibide. Horrez gain,



Lur Etxeberria Gurrutxaga zinegotziak eta Jon Tolaretxipi Grupo Easo Motor-eko zuzendariak aurkeztu zuten auto-partekatuaren egitasmoa. “Urtebeterako proba pilotua izango da”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

UDALAREN AHOLKUA

“Autoa lehenengo aldiz hartu aurretik udaleko energia teknikariarekin hitz egitea gomendatu du Udalak, 943 57 94 17 telefonora deituta edo energia@usurbil.eus helbidera idatzita”

autoaren funtzionamenduaren inguruko gida bat aurkituko dute erabiltzaileek autoko eskularru-kutxan.

Energia teknikariarekin hitzordua lotu

Autoa lehenengo aldiz hartu aurretik, udaleko energia teknikariarekin hitz egitea gomendatu du Udalak, 943579417 telefonora deituz edo energia@usurbil.eus helbidera idatziz.

Jon Tolaretxipi, Easo Motor: “Usurbilgoa eta gero, atzetik etorriko dira beste herriak”

Jon Tolaretxipi Grupo Easo Motor-eko zuzendariak eskerrak eman nahi dizkio Usurbilgo Udalari, auto-elektrikoaren aldeko apustu garbia egiteagatik.

“Usurbilgoa izango da Euskal Herrian egingo den lehen proba, eta ziur nago beste herriak atzetik etorriko direla ondoren”. Hitzok Potxoenean eginiko aurkezpen ekitaldian esan zituen.

Jon Tolaretxipiren ustez, “Hyundai Kona autoa oso aukera ona da, batez ere auto elektrikoa erabiltzeko ohiturarik ez duten herritarrentzat”. Usurbildarrek eskura dute orain, “tankera honetako kottxeak probatu eta egon daitezkeen beldurra uxatzeko. Behin probatuz gero, oso erraza da erabiltzen”.

Prezioa: “Ordua 1,5 euro gehi 0,2 euro kilometro bakoitzeko”

Nola irekitzen da autoa?

Telefono mugikorrean ezarritako Vive aplikazioaren bitartez.

Zein da auto-partekatua?

Hyundai Kona auto elektrikoa.

Zein autonomia du autoak?

Erabilera arrunt bat eginez eta bateria 100% kargatuta, 450 kilometroko autonomia du.

Autoak ba al du kargarako kablerik?

Bai, maletategian.

Zer egin behar dut autoa zikintopatzuz gero?

Autoa 15 egunean behin garbituko da. Zikina topatzuz gero 911 639 481 telefono zenbakian oharra adierazi.

Zein prezio du zerbitzuak?

1,5 euro/ordua (36 euro/eguna) + 0,2 euro/km.

Zer barne hartzen du zerbitzu horrek?

Zerbitzuak mantenu, elektrizitate, kilometraje eta aseguru hartzen ditu aintzat. Isun, zigor edo sortu daitezkeen kalteak ez dira sartzen, eta norberak ordaintzen ditu asegurutik kanpo gerta-

tzen bada.

Bidesariak barne daude?

Ez, bide sariak ez daude barne.

Zer gertatzen da isunik balego?

Vive aplikazioko administrazioak momentu horretan erabiltzailea nor den identifikatu eta zuzenean erabiltzaileari iristen zaio isuna.

Auto-partekatuari buruzko gida praktikoa

Zertan datza Usurbilgo auto-partekatuaren zerbitzuak?

Zerbitzu honen bitartez, mugikorreko Vive aplikazioarekin auto elektrikoa alokatu daiteke, erabilitako orduen eta egindako kilometroen arabera ordainduz.

Non dago autoa?

Usurbilgo auto-partekatua Kale Nagusian, udaletxe aurrean egongo da aparkatuta.

Nork erabili dezake?

Gida baimena indarrean duen eta 18 urte baino gehiago duen orok erabil dezake, baina ibilgailua beti, Usurbilen hartu eta utzi behar da.

Nola ematen da alta zerbitzuan?

Mugikorrean Vive aplikazioa instalatu behar duzu. Bertan, erabiltzaile moduan alta eman (argazkia, gidabaimena, NAN-a eta kontu korronea sartu behar dira) eta onartua izan behar zara. Behin erabiltzaile moduan onartuta zaudenean, autoa erabil dezakezu.

Nola eta noiz ordaintzen da zerbitzua?

- Zerbitzua txartel bidez ordaintzen da, erreserba egite-rakoan (1,5 euro/ordua).
- Egindako kilometroak zerbitzua amaitutakoan ordaintzen dira (0,2 euro/km).
- Ordainketaren eta alokairuaren kontratuaren informazio gutzia mailean jasotzen da.

Auto partekatua alokatu aurretik, fidantza edo antzekorik ordaindu behar da?

Ez, auto-partekatua modu arduratsuan erabiltzea denon ardura da.

Auto elektrikoa erabiltzeko gida.

Autoan erabilpen gida bat dago.

Nola egiten da erreserba?



Autoaren aparkalekua udaletxe parean da. Bertan kargatu behar da autoa.

Vive aplikazioaren bitartez egiten da erreserba (Android eta iOS-entzat erabilgarri).

Noiz egin dezaket erreserba?

Edozein momentutan egin daiteke erreserba (gehienez ere 24 ordukoak izan daitezke) eta ezin da 2 egunez jarraian egin erreserba.

Aseguratuta nago?

- Bai, autoak arrisku orotako aseguruia du, 320 euroko frankiziarekin.
- Erabiltzaileak kalte edo istripurik balu autoarekin, kalteak ordaindu beharko ditu, gehienez ere 320 euro.

Istripua izanez gero, zer egin behar dut?

- Istripua izanez gero, autoko eskularru-kutxan topatuko duzun istripuen Europako partea bete behar duzu.
- Autoak ezin badu ibili, errepideko laguntza-telefonora deitu behar duzu, eta bertan azaldutako irizpideak jarraitu.
- Bestela Vive-ko asistentzia telefonora deitu 911 639 481.

Nola pizten da autoa?

- Mugikorrarekin erreserba eginda daukazun orduan, autora hurbildu, eta mugikorrarekin (bluetootha aktibatuta izanda) autoa irekitzen da.
- Behin autoa irekita, erabile-

ra gidan zehazten dira hurrengo pausuak (kargagailua itzali, kablea kendu eta ABIATZE botoia sakatu). Ez da giltzarik behar.

Zein da erreserba bakoitzaren gutxieneko eta gehieneko iraupena?

- Ez dago erreserba egiteko gutxieneko iraupenik.
- Autoa gehienez ere 24 orduko erreserbetarako da eta ezin da 2 egunez jarraian erreserbatu.

Nola alda dezaket erreserba bat?

- Luzatzeko, inork aurrez ez badu ordu horretarako eskatu, Vive aplikazioan luzapena eska daiteke.
- Edozein arrazoi dela eta, erreserba ordua baino lehen, eskaera bertan behera utzi nahi bada, egin daiteke, eta diru itzulketa egiteko 911 639 481 telefonora deitu behar da.

Zer gertatzen da, erreserba aurreikusi baino lehen amaitzen bada?

Erreserba denbora tarte gutzia ordaintzen da, nahiz eta ez erabili.

Zer gertatzen da autoa erreserba denbora baino beranduago itzultzen badut?

Erabilera desgokiagatik zigortu egiten da, erreserba kostua-

ren bikoitza ordainduz.

Autoa beste leku batean utz dezaket erreserba amaitutakoan?

Ez.

Beste pertsona batek gida dezake autoa?

Ez. Gastu guztiak erreserba egin duen pertsonari egotziko zaizkio. Isunak eta egon daitezkeen bestelako zigorrak ere bai.

Zein bateria mailarekin topatuko dut autoa?

■ Erabilera bakoitzaren ondoren, autoa kargatzen utzi behar da beti (ez du kosturik erabiltzailearentzat). Hortaz, aparkatuta dagoen momentu oro, kargatzen dago autoa.

■ Aplikazioan ikus daiteke zer nolako karga maila duen momentu oro.

Nola kargatzen dut autoa erreserba eginda dudanean.

Auto-partekatua, Usurbilgo bere karga puntuan soilik karga daiteke. Erabilera arrunt bat eginez, autoak 450 kilometroko autonomia du. Hortaz, Usurbilgo autoa gehienez ere 200 km-ko erradioan erabil daiteke. Erabiltzaile bakoitzaren ardura da erabiltzen autonomia ego-kitzea.

Mugikorra bateriarik gabe geratzen bazait?

- Beharrezkoa da mugikorra beti kargatuta izatea erreserba egin eta amaitzeko, eta baita autoa ireki eta ixteko.
- Autoan mugikorra kargatu daiteke (gomendagarria da kargarako kablea eramatea).
- Mugikorra bateriarik gabe geratu bazaizu edo galdu baduzu:
 - Beste mugikor batetik Vive aplikaziora sar zaitezke zure profilarekin.
 - Ezin baduzu sartu, deitu 911 639 481 telefono zenbakira.

“Erabaki koherente eta zentzuduna hartu nahi nuen”

S aritu berri dute Mattin Aierbe Zubeldia usurbildarra gidabaimeneko teorikoa euskaraz ateratzeagatik. Badira zenbait urte Buruntzaldeko udalerriek ekimena martxan dutela, urtero, eskualdea osatzen duten herri bakoitzeko 400 euroko saria banatzeko herriko autoeskolen artean; hots, euskaraz teorikoa ateratzeko aukera ematen dutenen artean. Usurbilen, Solozabal autoeskola baino ez dagoenez, ikasle bakarrari dagokio sari osoa. Aurtengo saritua ekimen hone-tan, esan bezala, Mattin Aierbe izan da.



Solozabal autoeskolan atera zuen gidabaimena. Azterketa teorikoa euskaraz egin zuen. Horri esker, 400 euroko saria eskuratu du.

NOAUA! 18 urte baino gehiago dituzu. Zergatik erabaki duzu orain ateratzea gidabaimena?

Mattin Aierbe: Nire poltsiko-tik ordaindu dut, eta beraz, kopuru polit bat osatu arte ezin nuen hasi. Lehenago ez dut aukerarik izan, eta tira, 400 euroak oso ondo etorriko zaizkit.

Saria zertarako erabiliko duzun pentsatu duzu?

Egin esan oraindik ez dizkiot buelta gehiegi eman kontu horri. Alokairua ordaintzeko erabiliko dudala pentsatzen dut edo parranda txikiren bat egiteko. Dena delakorako ere ondo etorriko da dudarik gabe.

MATTIN AIERBE

“Euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzen dut nire bizitzako aspektu guztietan”

Nolatan euskaraz?

Ez dakit esaten. Euskaraz bizi naiz eta euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzen dut nire bizitzako aspektu guztietan. Hori bermatzeko eskaera egin beharra dago, zenbait gauza aldatuko badira, eta behin egonda horrelako aukera bat, kontsumitu beharra daukagu. Erabaki koherente eta zentzu-

duna hartu nahi nuen; euskaraz bizi banaiz, gisa honetako gauzak ere euskaraz egin behar ditut. Zentzu horretan, eskolan euskaraz ikastea eta egin beharreko guztiak euskaraz egitea iruditzen zait zentzuzkoena.

Batzuek diote euskarazko azterketa nahiko zaila dela.

Esan beharra dago azterketa ez dagoela oso ondo eginda. Itzulpenak nahiko traketsak dira, bai azterketa prestatzeko egiten diren testetan, eta zer esanik ez azterketan bertan. Niri pare bat galdera egokitu zitzaizkidan azterketan ulertu

ere egiten ez zirenak. Intuizioz erantzun behar izan nituen ia. Hori horrela izatea lotsagarria da, ez dira baldintza berak euskaraz eta gaztelaraz egiten dituztenentzat. Azterketan bertan ere, ordenagailuan azterketa euskaraz jartzen dute, baina bertan dagoen ardurandunak ez daki euskaraz, orduan, alfer-alferrik galdetuko diozu edozer. Arazoren bat baldin badaukazu gaztelaraz galdetu beharra dago. Bermarik ez dago, eta berme horiek emateko gogorik ere ez. Gai-nontzekoan, euskaraz edo gaztelaraz egin, berdin berdina da.

“Uste dut gaztelaraz ikastea zailago egingo zitzaidala”

NOAUA! Jada praktikoa ere atera duzu?

Mattin Aierbe: Bai. Praktikoa, ordea, ezin da euskaraz egin. Asko landu beharreko kontua da, eta pentsatzen dut eskumen kontua ere izango dela. Teorikoa euskaraz egin, baina gero praktikoa euskaraz egin ezin izatea ez da oso logikoa inondik ere. Euskaraz ikasteko eskubidea daukagu, eta euskara hizkuntza ofiziala denez DGTk ere arau horiek bete beharko dituela iruditzen zait

eta horregatik jarriko zutela neurri handi batean teorikoa euskaraz egiteko aukera, bai eta jendearen eskaeragatik ere. Ez da oso ulargarria teoria euskaraz eginda praktikoa gaztelaraz egin beharra, baina halaxe dira gauzak.

Izango duzu aholkuren bat gidabaimena, zu bezala, euskaraz ateratzea buruan darabilkienarentzat.

Ez da beste munduko gauza. Azkenean, zerotik hasten zara

ikasten eta beraz, dagoenera ondo moldatzen zara. Beti egiten zaizkizu ezagunago “ceda el paso” eta horrelako hitzak, baina behin ikasi behar dituzun gauzak izanda, eta zu berez euskalduna izanda, ez dauka inolako zailtasunik. Gainera, nik uste gaztelaraz ikastea zailago egingo zitzaidala. Azkenean erabakia hartu eta jarraitzea baino ez da. Nik inguruan baditut lagunak gaztelaraz atera dutenak, eta bi erabakiak dira zilegi. Nik

nahiago euskaraz ateratzea-gatik behin kale egin azterketan, lehenengoan gaztelaraz ateratzea baino. DGTri eskatu nahi badiogu azterketa praktikoa euskaraz egiteko aukera emateko, zifrak hor daude eta zenbat eta gehiago izan euskaraz animatzen direnak, presioa ere handiagoa da.

Ez hori bakarrik, gainera saria irabazteko aukera dago, eta dirutxo hori ez da inoiz gaizki etortzen.

Freskagarri Naturala!

Sagardo berriak dasta ditzakezue segurtasunez gure sagardotegian!

Betiko Sagardoa

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



URDAIRA

Sagardotegia

OSTEGUN, OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDETAN irekita

osasun neurri guztiekin ERRESERBA EZAZU!

Aginaga 943 37 26 91



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA

ASTELEHENETAN ITXITA

Sagardotegia

osasun neurri guztiekin

943 36 67 10

info@aginagasagardotegia.com www.aginagasagardotegia.com




%100 bertako sagarra

OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDETAN IREKITA (ERRESERBAREKIN)


osasun neurri guztiekin

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

AIALDE BERRI

Santuenea, Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA



Andrea Arruti: “Antzerkia erakargarri egiten bazaizu, oso aukera ona da probatzeko”

Zestoarra da Andrea Arruti, baina Usurbilen biziko da aurrerantzean. Herritar berriak Arte Eszenikoak ikasi zituen, eta Ixabel Agirresarobe eta biek antzerki tailerra antolatu dute Aste Santurako. Tailerrari eta bere ibilbideari buruz mintzatu da NOAUA!rekin.

NOAUA! Aste Santurako proposamena luzatu duzue Ixabelek eta biok. Zer aurreratu dezakezu?

Andrea Arruti: Aspaldian genbiltzan biak zerbait antolatzeko ideiarekin. Harremana daukagu, eta animatu egin gara antzerki eskaintza egitera. Jendeak antzerkia proba dezan, jokoak egingo ditugu gauza desberdinak lantzeko. Egun dezente jarri ditugu eskura, baina izen-ematea librea izango da, hau da, egun bakarerrako, birako, aste osorako edo bi aste osoak egiteko izen emateko aukera egongo da. Bakoitzak daukan egoeraren arabera erabakitzeak aukera ematen du horrek, tailer bakoitzak indibidual modura ulertuta. Bi astez arituko gara tailerra eskaintzen, eta eguneko 8 euro balioko du. Eguneko ordu eta erdiko saioak egingo ditugu.



Ixabel Agirresaroberekin batera, antzerki tailer bat eskainiko du martxoaren 29tik apirilaren 11ra.

ANDREA ARRUTI

“Guretzat antzerki perfektuena adin guztietako jendea biltzen duena da”

5 urtetik gorako edonori zuzenduta daude saioak. Belaunaldi arteko harremantze lanean interesa daukazu?

Guretzat antzerki perfektuena

adin guztietako jendea biltzen duena da. Askotan taldeak egiten dira adinaren arabera, baina gu ez gabiltza horren bila. Ni denetarikotaldeetan aritu naiz, nire adinekoek bakarrik osatutako taldeetan eta belaunaldi asko nahasten dituztenetan. Esperientzia horretatik ikasi dut errazagoa dela belaunaldi arteko taldeak osatzea, bai eta adin desberdinetakoei sortutako ideiak nahastuta lan indartsuagoak sortzen direla ere.

Askok antzerkia gazteen jardueratzat hartzen dute.

Jende askok ideia oker hori izaten du, bai. Ixabelek haurrei ematen dizkie klaseak, baina nik uste jende helduagoa ez dela animatzen ez duelako bere burua sekula horretan ikusi. Niri gazte eta helduagoen arteko lanketa oso interesgarria iruditzen zait, askotan probatu arte ez baita jakiten gustoko dugun edo ez.

“Madrilen ikasi nituen Arte Eszenikoak”

NOAUA! Zu ere haurra zinela hasi zinen antzerkia egiten?

Andrea Arruti: Ni neu Zestoan aritu nintzen hiru edo lau urte bertako antzerki taldean. 16 urterekin hasi nintzen horretan, lehenago ez nekien oso ongi mundu horrek nola funtzionatzen zuen telebistan ikusten nuenetik haratago. Askotan, antzerkia eta zinea

ere ez ditugu ondo bereizten. Nik Madrilen ikasi nituen Arte Eszenikoak, eta han oso ondo bereizten ikasi nuen antzezle lana diziplina desberdinetan.

Orduan ez datorkizu ume-umetatik.

Egia esan, txikitatik gustatu izan zait dantza egitea eta abestea eta gisa horretako kon-

tuak. 16 urterekin hartu nuen antzerkian hasteko erabakia eta oso gustura aritu nintzen. Beraz, behin DBH bukatuta amari esan nion batxilerra egingo nuela ondoren Madrilen Arte Eszenikoak ikasteko aukera ematen bazidan. Eta halaxe egin nuen. Madrilen bi urte egin nituen eskola batean formakuntza lanetan. Gerora

lantxoak egin ditut: Aitaren Etxea pelikulan figurante lanetan aritu nintzen, beste serie bat ari naiz grabatzen orain *Nahiak* izeneko, La Farandula Donostiako antzezlekuan ere lan egin dut...

Orain ez naiz antzerkitik bizi, baina gustatzen zait mundu horretan gauzatxoak egiten aritea.

“Antzerkiak askatasuna ematen dit”

NOAUA! Arte Eszenikoak ikastera animatzeko antzerkiak zerbait emango zizun.

Andrea Arruti: Bai, askatasuna ematen dit niri antzerkiak, hitz egiteko askatasuna batik bat. Jende asko ezagutzen dut antzerkian murgildu dena lotsatia zelako, eta askorentzat terapia ona da gehiago irekitzeko. Autoezagutzarako ere ezinhobea da; gorputza eta hizkera asko lantzen dira.

Hori da bidali nahi duzun mezua?

Bai, hori da. Izen emateko asmotan dabiltzanei beldurrik ez izateko mezua eman nahi diet, ez Covid-19aren kontuagatik ez eta lotsatia izateagatik ere. Guk inor ez dugu derrigortuko egin nahi ez duen ezer egitera. Noizbait antzerkiak erakarri



“Aspaldian genbiltzan Ixabel eta biak zerbait antolatzeke ideiarekin”. Antzerki tailerra Aste Santuko oporraldi egunetan eskainiko dute.

ANDREA ARRUTI

“Autoezagutzarako ere ezinhobea da; gorputza eta hizkera asko lantzen dira”

duen edonorentzat oso aukera ona da probatzeko, eta hortik

aurrera erabakitzeko aukera izango da.

Tailer horietatik talde bat sortzeko asmorik al duzue?

Printzipioz tailerra sortu dugu, baina ondo funtzionatzen duela ikusten badugu, eta jendea prest badago zerbait gehiago

egiteko, agian sortuko genuke talderen bat datorren ikasturteari begira edo.

Antzerki ikastaroa gaztetxoentzat

Ixabel Agirresarobek eta Andrea Arrutik antzerki ikastaroa eskainiko dute martxoaren 29tik apirilaren 11ra.

Astelehenetik ostiralera goizeko 11:00etatik 12:30era eta arratsaldetan 17:00etatik 18:30era klase libreak eskainiko dituzte, hau da, bakoitzak nahi dituen klaseetara joateko aukera izango du.

Harremanetarako

■ 675712383 (Ixabel).

■ 650614380 (Andrea).

LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA

**Osasun neurri guztiekin
zuen zerbitzura**

-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserria, EREÑOTZU-HERNANI
Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867

Tapa eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2020 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2020ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

Soinurbilen txerto musikalak harrera ona izan zuen



Zumarte Musika Eskolako ikasleek Sutegiko ikusleen txalo zaparra jaso zuten.



Broken Brothers Brass Band-ekoek festa-giro ederra sortu zuten Artzabalen.



Etxeko edozein objektu musika-tresna izan daitekeela frogatzeko balio izan zuen Trakamatrakaren ikuskizunak.



Sakanako Musika Bandak emakume konpositoreen doinuak eskaini zituen igandean frontoian. Taldeko emakumeek hartu zuten lehen lerroa.






MARTXOAK 4 - 24
Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Plateretik baratzerara

Eskaerak:
errigora.eus
☎ +34 848 87 12 23
edo Noaua'n

Apirilaren lehen hamabostaldian jasoko ditugu produktu guztiak.

 Arroitz Olea-olio birjina extra virginikoa 8 LITROKO OINTZIA 33€ 1.000/L	 Zainzuriak Zainzuriak puruak 8 LITROKO OINTZIA 45€ 1.000/L	 Zainzuriak Zainzuriak puruak 8 LITROKO OINTZIA 43€ 1.000/L	 Piperrak Piperrak puruak 8 LITROKO OINTZIA 37€ 1.000/L	 Piperrak Piperrak puruak 8 LITROKO OINTZIA 34€ 1.000/L	 Orburuak Olibu-olio birjina extra virginikoa 8 LITROKO OINTZIA 77€ 1.000/L	 Orburuak Olibu-olio birjina extra virginikoa 8 LITROKO OINTZIA 53€ 1.000/L
 Arbekina Olea-olio birjina extra virginikoa 8 LITROKO OINTZIA 32€ 1.000/L	 Kardua Kardua puruak 8 LITROKO OINTZIA 29€ 1.000/L	 Kardua Kardua puruak 8 LITROKO OINTZIA 21€ 1.000/L	 Menestra Barazki-menestra 8 LITROKO OINTZIA 65€ 1.000/L	 Barazkiak Barazkiak puruak 8 LITROKO OINTZIA 23€ 1.000/L	 Potxak Potxak puruak 8 LITROKO OINTZIA 43€ 1.000/L	 Potxak Potxak puruak 8 LITROKO OINTZIA 35€ 1.000/L
 Enpetre Olea-olio birjina extra virginikoa 8 LITROKO OINTZIA 19€ 1.000/L	 Tomatea Tomatea puruak 8 LITROKO OINTZIA 21€ 1.000/L	 Tomatea Tomatea puruak 8 LITROKO OINTZIA 19€ 1.000/L	 Kremak Kremak puruak 8 LITROKO OINTZIA 28€ 1.000/L	 Txitxiloak Txitxiloak puruak 8 LITROKO OINTZIA 27€ 1.000/L	 Arroza Arroza puruak 8 LITROKO OINTZIA 43€ 1.000/L	 Arroza Arroza puruak 8 LITROKO OINTZIA 22€ 1.000/L
 Pasta Pasta puruak 8 LITROKO OINTZIA 35€ 1.000/L						

Migrazio prozesu guztien motibazio nagusia, “bizimodu hobe bat topatzeko nahia”

2020ko udazkenean, Usurbilgo jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzen ikerketa abiatu zuen Aztikerrek, Udalaren eskariz. Ondorioa argia da: antzeko motibazioak bultzatu ditu migrazio prozesuak, “bizimodu hobe bat topatzeko nahia”.

Ikerketa egiteko, azken hamarkadetan Usurbilek jaso dituen bi migrazio olatu nagusietako protagonistengana jo du Aztikerrek. “Herrian jaiotakoek ere hartu dute hitza, migrazio horiek nola bizi izan dituzten ezagutzeko”, Udalak aditzera eman duenez. “Zehazki, 1960-1970eko hamarkadetakoa migrazio prozesuarekin zer gertatu zen aztertu dute Aztikerrekoek, nola bizi izan zuten batzuek eta besteek, helburu batekin: gaur egungo migrazioa ondo kudeatzea”.

Antzeko motibazioek bultzatu dituzte migrazio prozesuak: bizimodu hobe bat topatzeko nahia. Desberdintasunak ere badira. “1960ko eta 1970eko



2019ko Mundualdiaren aurkezpen ekitaldikoa da argazkia.

LEGEA, OZTOPO

“Migratzaileen bizitza erabat baldintzatzen duen lege bat dago indarrean gaur egun, lehen ez zegoena: 2000. urteko Atzeritartasun Legea”

hamarkadetan Espainiatik iritsi zirenak lan-merkatuak sortutako beharrak erakarrita etorri ziren. Gaur egun, leku zehatz batetik baino, askotariakoak dira Usurbila iritsitakoak

jatorriko herrialdeak”, Aztikerren ikerketatik ondorioztatu denez. “Horrez gain, migratzaileen bizitza erabat baldintzatzen duen lege bat dago indarrean gaur egun, orduan ez zegoena: 2000. urteko Atzeritartasun Legea”.

Horren arabera, etorkinek hiru urtez egon behar dute errolatuta leku berean lanerako eta bertan bizitzeko baimena lortu ahal izateko. “Horren ondorioz, inolako lan-kontraturik gabe aritu behar izaten dute lanean”, ze-

haztu dute Aztikerreko ikerlariak. “Hiru urtez, baldintza gogorretan eta horiek hobetzeko batere aukerarik gabe”.

Batzuek eta besteek topo egiteko espazio publiko gutxiago konpartitzen dira. “Horra beste desberdintasun bat. Lehen, auzoen pisua handiagoa zen eguneroko bizitzan, leku beretan egiten zuten lan. Orain, lan munduan harreman gutxiago sortzen dira, eta sortzen direnak lausoa-goak dira”.

Ikerketaren ondorio nagusiak biltzen dituen gida laburtua banatuko du Udalak hurrengo astean, etxex etxe.

Elkarbizitza helburu

Ikerketan parte hartu dutenei aurretik eman zaie ondorioen berri. “Bilera horiek bazuten bigarren helburu bat: usurbildar guztien elkarbizitzarako proposamen zehatzak egitea, Udalak hemendik aurrera eman beharreko urratsak definitzeko asmoz”, udal iturriek aditzera eman dutenez.

Martxoaren 27an ospatuko da Mundualdia

Iaz ez zen Mundualdirik izan, Covid-19a tartetik, ez baitzegoen baldintzarik bere ohiko formatuan egiteko. Aurten egin egingo da, martxoaren 27an larunbatarekin, baina ezohiko formatuan.

Martxoaren 27rako prestatu

duten egitarauak bi hitzordu izango ditu eta biak elkarlotuta egongo dira. Aniztasunaren inguruan Udalak ekoiztu duen ikus-entzunezkoa eskainiko da eta ondoren aitortza egingo zaie garai desberdinetan Usurbila etorritako migratzaileei.

Martxoak 27 larunbata

■ Arratsaldeko 17:00etan, Migrazioari maskarak erauzten / La migración, sin máscaras dokumentala Suteigin.

■ Proiektzioaren amaieran, aitortza-ekitaldia frontoian.

■ Oharra: Edukiera mugak

direla eta, eskaera nahikorik balego, bigarren emanaldi bat izango da hurrengo egunean, hilaren 28an, ordu berean.

■ Izen-ematea, usurbilkultura.eus webgunearen bidez egingo da.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
628 45 78 39
reformasmonroy@hotmail.es
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

ETXETRESNEN KONPONKETA-SALMENTA
MARKA GUZTIAK
DESHUMIDIFIKADOREAK ERE BAI!
645417665
xabier

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Korrikari gorazarre egingo zaio martxoaren 28an

Asteotan, petoak banatzen, ibilbideko kilometroak seinaleztatzen ikusiko genituen, herria euskararen aldeko lasterketa jendetsuenerako prestatzen. Euskal Herrian errotuak ditugun gainerako beste hainbat ekimenen antzera ordea, pandemiak hilabete honetako bigarren hamabostaldian ospatzekoa zen 22. Korrika geldiarazi du. Antolakuntzak bi urteroko hitzordua 2022ra atzeratzea erabakia du, baina euskararen aldeko martxa ezaguna aurrean egitekoa zela ahaztu gabe.

Izatez martxoaren 28an helduko zen 22. Korrika ezagutzera eman ez den Euskal Herriko hiribururen bateko helmugara. Dakizuenetz, azken metroak emozio handikoak izan ohi dira. Aurreko hamar egunetan 24 orduz herriz herri, eskuz esku ibilitako lekukoak ezkutu daraman mezua irakurtzen du pertsona esanguratsu batek, musikaz giroturiko amaierako jaialdi jendetsuan.

Amaiera ekitaldi horri heldu nahi izan dio AEK-k eta egungo osasun krisialdira egokituriko ekitaldiak antolatu ditu euskaltegiak dituen Euskal Herriko herrietan, aipatu hitzordua ospatuko zen martxoako azken igandean, hilaren 28an, omenaldi gisara. Usurbilen ere bai. Etumeta AEK euskaltegikoak prestatuta lan betean dira. Herrietako ekitaldi guztiak eguerdiko 12:00etan hasiko dira, antzeko formatuan ospatuko dira eta iraupen beretsua izango dute. Formatu erraldoidun jaialdiak izan ohi dituen osagai hainbat izango ditu Usurbilgo frontoian egitekoa den ekitaldiak; tartean, ez omen da faltako Korrikaren lekukoak gordean eraman ohi duen mezuaren irakurketa.

Ekarpenak jasotzeko aukera zabalik du Etumeta AEK euskaltegiak. Hitzordurako propo-



2019ko Korrika. Lekukoa Etumeta AEK euskaltegiko ikasleek hartu zuten unea.

MARTXOAREN 28AN

“AEK-k ekitaldiak iragarri ditu euskaltegiak dituen herrietan. Usurbilen, eguerdiko 12:00etan egingo da frontoian”

samenik duenak bideotatik jar daiteke harremanetan antolatzailerekin:

607 609 379

usurbil@aeak.eus

Katiluak

Udazkenean Nafarroa hegoaldeko euskalgintza eta tokiko produktuen salmenta sustatu ohi dituen Errigorak hiru kaxa jarri zituen salgai; kaxetako bat erositak, berez hilabete honetan ospatzekoa zen Korrikaren katilua eskura zitekeen. Katiluak salgai dituzue orain Etumeta AEK euskaltegian, 5 euroren truke. Helburu argiarekin; euskararen aldeko lasterketa laguntzea.

Taldeak erdibitu beharrean

Pandemiak baldintzaturiko 2020-21 ikasturtearen bigarren zati betean dira euskalte-

gian. Inoiz ezagutu ez dugun osasun krisialdiagatik “nahiko ikasturte desastrosoa” izango zela aurreikusten zuten Etumeta AEK-n. Baina ez, “eutsi egin diogu”, adierazi diote NOAUA!ri. Autoikaskuntzan, azterketen prestakuntzan, nahiz euskalduntzeko ahaleginean ari dira hainbat lagun aurrean ere, hori bai, ezohiko testuinguru honen harira ezarri diren neurrietara egokituta. “Bitan banatu behar izan dugu taldea. Bi klase aurrez aurre eskaintzen ditugu eta beste bi etxetik”.

Lehen gutxienez zazpiko taldeak osatu behar zituzten, orain gehienez seikoak izan behar dute, irakaslea barne dela. “Zati bi egin behar da, oso talde txikiak geratzen dira”, azaldu digute euskaltegikoek. Moldaketok eraginik izaten ari da haien jardunean. Egun ikasten dabiltzan aranean agian ez hainbeste, baina helduagoak diren ikasleen artean edota ikasketak aspaldi atzean utziak dituztenen kasuan, “formatu honek ikasketa prozesua mantsotu duela” dio Etumeta AEK-koek.

Mintzalagun

Euskararen erabilera sustatzeko euskaltegiak, NOAUA! Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak 2010ean abiarazitako proiektuak ere bere bidetik segitzen du. Covid-19ak eragindako pandemiara egokitutako neurrien artean. Osasun krisialdiak eraginda, izan da ekimenean parte hartzeari utzi dion kiderik edota online formatura, Mintzaneterako jauzia egin duenik ere.

Izen-ematea zabalik dago

Gehienek ordea orain arteko bidea jorratzen segitzea erabaki dute. “Nahi duenarentzat izen-emateko epea zabalik dago urte osoan”, gogorarazi dute Etumeta AEK euskaltegitik.

Euskaltegiak osatuko dituzte taldeak

Bidelari eta bidelagunak, euskara ikasten aritu edota dakitenak behar dituzte Mintzalagunek. Izena emanda, taldea osatzeko lanak euskaltegiak bideratuko ditu.

Txerto emozioal bat, Nerea Mendizabal psikopedagogoaren eskutik

Pandemiaren aurrean konponbide bat aurkitu du gizarteak: txertoa. Jada lehen txertoak banatzen ari direnean, alderdi fisikoa sendatzeko aurkitu dute metodoa, “baina alderdi emozional horrentzat zer eskaini digute?”. Nerea Mendizabal psikopedagogoaren hitzaldiak kezka hori du abiapuntu.

Hitz-Ahoren ekimenez, Nerea Mendizabal psikopedagogoak hainbat hitzaldi eskainiko ditu asteotan. Azken urtean emozio asko bizi izan ditu gizakiak, beldurretatik hasita gizakiak hain berezkoak dituen maitasuna, sinpatia eta antzekoak sustatu beharra legoke. Emozio positiboek ingurukoengan eragin positiboa baitute. Horrek ez du esan nahi errua edo bestelako emozio negatiboak bizi behar ez direnik. Gizakiek denetariko emozioak bizi behar dituzte, hori baita naturala. Analfabeto emozionalak izatean dago arazo handiena, baldintza hauek horretara bidera baitezakete.



Nerea Mendizabalek aurreko astean eskaini zuen lehen hitzaldia. Beste bi eskainiko ditu datozen asteetan.

NEREA MENDIZABAL

“Maitasuna, sinpatia eta antzekoak sustatu beharra legoke. Emozio positiboek ingurukoengan eragin positiboa baitute”

Sentimendu orori egin behar zaio tokia

Emozioak baimentzetik hasi behar luke egungo prozesu

emozionalak, onak zein desatseginak. Nerea Mendizabal psikopedagogoaren esanetan, “sentimendu emozional orori eman behar zaio lekua, direnak direla ere ito gabe. Gustuko ez ditugun emozioek ere mezuak ekartzen dituzte, funtzio konkretuak dituzte, eta horiek ere bizitzea interesgarria da gizabanakoen ongizaterako”. Norbanakoen kasuan, zein ingurukoena jasotzerakoan.

Emozioen zainketa, funtsezkoa

Gitarra saio txiki bat eskaini zuen Mendizabalek emozioei lekua egiten uzteko ariketa modura. Fisikoaren zainketa funtsezkoa da, baina “kontuan hartu behar da emozioen zainketa ere estu-estu lotuta dagoela”, eta zentzu horretan bie erantzun behar zaie. Behar fisikoek sentsazioak sortzen dizkigute, gosea, hotza... emozioekin ere gauza bera gertatzen da, behar batzuk azaltzen dituzte. Pentsamenduak emozioekin erabat lotuta daude, eta emozioak akzioekin baita ere. Behar konkretuen aurrean. Horregatik izan daitezke emozioak horren ani-

tzak.

Emozioen aniztasuna

Barne gatazkaren isla da egoera hau guztia. Aniztasunaren ideia beste mila arlotara begirunez eramaten den modu berean, emozioen aniztasunari begirunez lekua egin behar litzaioke. Bai bakoitzak bere barnean, bai ingurukoen emozioen aurrean ere.

Hitzak eta giltzak

Nerea Mendizabal psikopedagogoaren hitzaldian konfiantza, poza, itxaropena eta maitasuna dira hizpide nagusi. Balio horiek ez galtzeko eta

behar bezala pizteko giltzak ere eskaintzen dira.

Hitzaldiak, online

Hitzaldia online emango ditu. Pantailatik jarraitu ahal izateko zehaztasun guztiak esteka honetan topatuko dituzue: udarregi.eus/eu/gurasoak/guraso-eskola

Datozen hitzorduak

- Martxoaren 22an astelehena, 17:30ean. Hezitzaileei zuzendua.
- Apirilaren 26an astelehena, 17:30ean. Gurasoei zuzendua, gaztelaniaz.
- Antolatzailea: Hitz-Aho.

Errigorako elikagaiak eskatzeko epea martxoaren 24an amaituko da

Elikagai hauek daude aurretik: oliba-olio birjina estra, kontserbak eta arroz zein pasta-sortak. Eskaerak martxoaren 24ra arte egin daitezke.

Eskaerak non egin?

Aurten, hainbat produktutan kopuru-mugak dituztela eta, hiru bide egongo dira eskaerak egiteko:

- Online: errigora.eus
- Sarean eskaerak egiteko gai ez direnentzat, telefono bidez, 848 87 12 23 telefono zenbakira deituta.
- NOAUako bulegoan.

Banaketa puntua zehaztu

Eskaera egiterakoan, aurretik behar da produktuak jasotzeko puntua eta bertan zehaztutako egun eta ordu-tegian pasa beharko da jasotzera. 200 bat herritan daude banaketa-guneak.

Ordainketak

Ordainketa txartel bidez egiten dutenen kasuan, bi zatitan ordaintzeko aukera izango da (erdia martxoan eta bigarren zatia apirilean). Hala egiten ez duenak, dena batera ordainduko du, eskudirutan, produktuak jasotzean.

Banaketa, apirilean

Banaketa apirilaren bigarren hamabostaldian izango da eta, salbuespenak salbuespen, produktu guztiak aldi berean jasoko dira.



Banaketa apirilaren bigarren hamabostaldian egingo da.

Jon Gurrutxaga eta Urbil Artola Sutegin arituko dira ostiral honetan

Gospela, bluesa, folka eta rocka nagusi dira Jon Gurrutxagaren errepertorioan. Kanta bakoi-tzak paisaia musikal ezberdin bat iradokitzen du. Ostiral honetan Sutegin arituko da.

Musikariez inguraturik osatzen ditu diskoak baina zuzenekoan bikote moduan aritzen da, Urbi Artola hondarribiarrarekin batera. Dobro eta lap steel instrumentuekin girotzen ditu Artolak Gurrutxagaren harmoniak.



Ostiralean arratsaldeko 18:00etan arituko dira Sutegin. Sarrera 6 euro, aldeztatik usurbilkultura.eus bidez eskuragarri.

Soinurbil: larunbat honetan organo eta tronpeta kontzertua Salvatore elizan

Musikeneko Goi Mailako ikasleek organo eta tronpeta kontzertua.

■ Organo-jotzailea: Oscar Rodriguez. Tronpeta-jotzailea: Marco Cubillas.

■ Martxoak 20 larunbata, 19:00.

■ Salvatore elizan. Edukiera: 20.

■ Izena emateko azken eguna: martxoak 20, usurbilkultura.eus web orrialdean.

■ Antolatzailea: Zumarte.



Organoan Oscar Rodriguez arituko da. Tronpeta jotzen, Marco Cubillas.

Simone de Beauvoirren liburuari buruzko solasaldia online izan zen

Simone de Beauvoir aski ezaguna da feminismoaren jarraitzaileen artean. Duela 70 urte idazle eta pentsalari frantsesak idatzitako liburua euskaratu zuen Irene Arraratsek.

Solasaldia eskaini zuen ostegunean online modura Potxoenean hurbildutako dozena bat lagunentzat. Lehenago, gaian sartzeko, "Bigarren sexua(z)" collage dokumentala eskaini zuten, Nora Alberdiren lana.



Irene Arraratsek hitzaldia online eskaini zuen Potxoenean.

NOAUA!ko hainbat bazkidek Ogasunaren gutun bat jasoko dute egunotan

Batzuentzako ez da berria izango baina gehiengoak lehen aldiz jasoko du Foru Ogasunak igorritako esku-titza.

Aurten datuak egunera-tzen ahalegin berezi bat egin dugu. Honi esker, NOAUA!ko bazkideek urtero pagatzen duten kuota inguruko hobia eskuratu ahal izango dute Errenta Aitorpena egi-terakoan.

Bazkidetzako kuotak %20ko hobia du Errenta Aitorpenean

3/2004 mezenazgoaren pizgarri fiskalen foru arauari esker, NOAUA! Kultur Elkar-tea lehentasunezko Jarduera moduan izendatuta dago. Beraz, elkarteko bazkideek egiten duten ekarpenak (urteroko kuota) %20ko hobia du Errenta Aitorpenean.

Ez baduzu gutuna jaso, jarri gurekin harremanetan
NOAUA!ko bazkide bazarra eta ez baduzu Ogasuneko eskutitza jasotzen egun hauetan, eskertuko genizuke zure datuak egunera-tzea gure bulegora deituta (943 360 321) edo elkartea@noaua.eus helbidera email bat idatzita.

Bazkide ez bazara, orain duzu aukera

Azkenik, oraindik bazkide ez direnei gonbidapena luzatu nahi diegu NOAUA!ko partaide egin daitezen. Antolatzen ditugun ekintzetan beharpenez gozatze-ko aukera izango dute. Ez hori bakarrik. Antolatzen ditugun zozketetan parte hartzeaz gain, aipatutako hobia ere izango dute datorren urteko Errenta Aitorpenean.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garage bat alokairuan, 22m²

Santuenean. 671547567.

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko gurene alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dabilen pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo

interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagarria. 667907196

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziurtagarria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informekin 658706345 / 602568090.

24 urteko neska gaztea. Arratsaldean umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta

lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

BESTELAKOAK

Bi logeletako "zubi armairuak" eta habia-oheak ditugu. Egocera onean. Interesatua bazaude deitu 649482775. Merke edo oparitzeko prest.

Umeen zilar koloreko patinete scooter bat galdu dugu frontoi inguruan martxoaren lehen astean. Aurkitu baduzu deitu hona: 677411146.

Salgai termomix mod TM 31 oso berria 618094968

Laboraleko kartila bat galdu dut Antxetatik Atxegaldetako bidean. Topatzen baduzu asko eskertuko nizuke Udaltzaingora eramatea edo ondorengo telefonora deitzea: 629 475 343.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00.



Zorionak bikote! Martxoan 20an urtebetetze eguna! Ondo pasa zuen egunean eta muxu pilo bat familikoan partez.

Goardiako farmaziak

Osteguna 18	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 19	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata 20	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 21	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 22	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteartea 23	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte e
Asteazkena 24	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 25	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 26	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata 27	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea 28	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda martxoa

19 ostirala

■ Jon Gurrutxaga eta Urbil Artolaren kontzertua **Sutegin**. 18:00. Sarrera: 6 euro. Aldez aurretik usurbilkultura.eus bidez eskuragarri.

20 larunbata

■ Soinurbil Musika Astea: **Organo eta tronpeta kontzertua Salvatore elizan**. 19:00. Organo-jolea: Óscar Rodríguez. Tronpeta-jolea: Marco Cubillas. Sarrera: Doan. Aldez aurretik usurbilkultura.eus bidez eskuragarri.

21 igandea

■ Erik eta Win ikuskizuna **Sutegin**. 18:00. Sarrera: 6 euro. Aldez aurretik usurbilkultura.eus bidez eskuragarri.

Amek ez dute liburuaren inguruko solasaldi literarioa

Katixa Agirrerren Amek ez dute (Elkar) eleberria hizpide izango dute martxoaren 17an udal liburutegian.

Kattalin Minerrek gidatuta

Usurbilgo berdintasun sailak eta Sutegi udal liburutegiak elkarlanean prestatutako saioa izango da. Martxoaren 17an, arratsaldeko 18:00etan. Kattalin Miner idazleak gidatuko du solasaldia.



Kattalin Minerrek gidatuko du martxoaren 17ko solasaldia.

Jon Gurrutxaga eta Urbil Artolaren kontzertua, ostiral honetan Sutegin

Arima Beltza blues-rock taldean hasi zuen bere ibilbidea Jon Gurrutxagak; Sorotan Bele folk talde ezagunean Urbil Artola hondarribiarrak. Jon Gurrutxagaren "Kateak" izeneko lana aurkeztera etorriko dira Sutegira.

■ Martxoak 19 ostirala.

■ 18:00etan Sutegin.

■ Sarrera: 6 euro. Aldez aurretik usurbilkultura.eus bidez eskuragarri.

Erik eta Win ikuskizuna, igandean Sutegiko auditorioan

Buhameak taldea bueltan da. Ez gara Palestina ari ikuskizun arrakastatsuen ondoren, Erik eta Win-ekin itzuli dira. Muinean antzeko gaiak jorratzen dituzte: botere harremanak, barne gatazkak, genero kontuak, gizentasuna, feminismoa...

■ Martxoak 21 igandea.

■ 18:00etan Sutegin.

■ Sarrera: 6 euro. Aldez aurretik usurbilkultura.eus bidez eskuragarri.

Datozenak

"Txerto emozionala" hitzaldia, Nerea

Mendizabalen eskutik

Nerea Mendizabal psikopedagogoaren hitzaldian konfiantza, poza, itxaropena eta maitasuna izango dira hizpide nagusi. Balio horiek ez galtzeko eta behar bezala pizteko giltzak ere eskainiko ditu. Hitzaldia online emango dute. Pantailatik jarraitu ahal izateko zehaztasun guztiak esteka honetan topatuko dituzue:

udarregi.eus/eu/gurasoak/guraso-eskola

■ Martxoak 22, 17:30 (hezitzaileen-tzat).

■ Apirilak 26, 17:30. Gaztelaniaz.

■ Antolatzailea: Hitz-Aho.

Martxoaren 27an, Mundualdia

Arratsaldeko 17:00etan, *Migrazioari maskarak erauzten / La migración, sin máscaras* dokumentala Sutegin.

■ Proiektzioaren amaieran, aitor-tza-ekitaldia frontoian.

■ Oharra: Edukiera mugak direla eta, eskaera nahikorik balego, bigarren emanaldi bat izango da hurrengo egunean, hilaren 28an, ordu berean.

■ Izen-ematea, usurbilkultura.eus webgunearen bidez egingo da.

Ĥnaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Zuen publizitatea hemen
 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Josue Igeltseritza
 606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Euskal kultur agenda BERRIAⁿ



Berria.eus/zerbitzuak/agenda

berria | Informatzeak zenbat balio duen |

OSASUN GIDA 2021



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente parean doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente parean doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikoa
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen
salmenta eta alokairua,
- Etxez-etxeko zerbitzu
tekniko espezializatua,
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Osakidetzarekin
hitzarmena

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Kima

MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behean • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik